# UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2022IPLE0014
**Eguna:** 2022-11-29
**Ordua:** 19:00 – 19:35
**Tokia:** Areto Nagusian

**Bertaratuak**

- Aintzane Barandiaran Ezponda ....................Astigarragako EH BILDU
- Andoni Gartzia Arruabarrena....................Astigarragako EH BILDU
- Rosalia Fernandez Rodriguez ....................Astigarragako EH BILDU
- Aitor Güemes Oyarbide ....................Astigarragako EH BILDU
- Ione Olatziregi Mendiorotz ....................Astigarragako EH BILDU
- Juan Martín Arregui Sagües....................Astigarragako EAJ-PNV
- Urkiri Salaberria Gracia....................Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco....................Astigarragako EAJ-PNV

**Bertaratu ez direnak**

- Xabier Urdangarin Lasa ....................Astigarragako EH BILDU
- Estibaliz Neira martinez ....................Astigarragako EH BILDU
- Nerea Zusberro Alberro....................Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo.................... (6. aztergaian) Udal-talde Sozialista

**Idazkaria**

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

**Bertaratutako udal teknikariak**

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezko udal kontu-hartzailea

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| 2022ko urriaren 25eko akta onartzea. | 1 | Aprobación del acta de 25 de octubre de 2022. |
| 2022ko udal-aurrekontua. Kreditu aldaketa, kreditu gehigarria modalitatean: alegazioak erantzutea eta behin betiko onarpena. | 2 | Presupuesto municipal del 2022. Modificación de créditos, en la modalidad de crédito adicional: contestación a las allegaciones y aprobación definitiva |
| 2022ko udal-aurrekontua. Kreditu aldaketa, kreditu gehigarria modalitatean: hasierako onarpena | 3 | Presupuesto municipal del 2022. Modificación de créditos, en la modalidad de crédito adicional: aprobación inicial. |
| 2023ko udal-aurrekontua. Hasierako onarpena | 4 | Presupuesto municipal del 2023. Aprobación inicial. |
| 2023ko zerga fiskalak: alegazioak erantzutea | 5 | Ordenanzas Fiscales 2023: contestación de las |

| | | |
|---|---|---|
| eta behin betiko onarpena. | | alegaciones y aprobación definitiva. |
| 2022ko ordainsari-igoera gehigarria | 6 | Incremento retributivo adicional 2022. |
| Beterri-buruntza Mankomunitatea. 2012-2021eko likidazioen onarpena. | 7 | Mancomunidad Beterri-buruntza. Aprobación de las liquidaciones 2012-2021 |
| Beterri-buruntza Mankomunitatea. Programak gauzatzeko kudeaketa gomendio. | 8 | Mancomunidad Beterri-buruntza. Encomienda de gestión para la ejecución de programas. |
| Aholkularitza eta defentsa juridikoaren zerbitzuaren kontratua luzatzea. | 9 | Prorroga del contrato del servicio de asesoría y defensa jurídica |
| 2022ko euskararen nazioarteko egunerako adierazpen instituzionala | 10 | Declaración institucional del día internacional del Euskera de 2022. |
| Bizitza taldearen mozioa, mozioa, azken hilabetetan egon den hilkortasunaren gehikuntzari buruzkoa, seguruenik covid-19 botika geniko esperimentalaren inokulazioarekin lotuta egon daitezkeena. | 11 | Moción del grupo Bizitza, sobre la sobremortalidad detectada en los últimos meses seguramente correlacionadas con la inoculación del medicamento génico experimental covid-19. |
| Informazio, galdera eta eskariak. | 12 | Información, ruegos y preguntas. |

**Esan-eginak eta erabakiak**

| | |
|---|---|
| **1.- 2022ko urriaren 25eko akta onartzea.** | **1.- Aprobación del acta de 25 de octubre de 2022.** |
| Akta **aho batez onartu** egin da. | El acta se **aprueba por unanimidad.** |

| | |
|---|---|
| **2.-2022ko udal-aurrekontua. Kreditu aldaketa, kreditu gehigarria modalitatean: alegazioak erantzutea eta behin betiko onarpena.** | **2.- Presupuesto municipal del 2022. Modificación de créditos, en la modalidad de crédito adicional: contestación a las allegaciones y aprobación definitiva** |
| Alkateordeak Ogasun eta Ondarea Batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin: | La Teniente de Alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio: |
| ***Lehenengoa.-*** *Espedientea jendaurrean egon den epealdian egon den 4922 sarrera duen erreklamazioa onartzea.* | ***Primero.-*** Estimar la alegación con nº de entrada 4922 presentado en el período de información pública del expediente. |
| ***Bigarrena.-*** *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:* | ***Segundo.-*** *Aprobar el expediente de modificación de créditos del Presupuesto de este Ayuntamiento, en su modalidad de créditos adicionales, con el detalle por partidas que figura en la propuesta, según el siguiente resumen por capítulos:* |

***KREDITU GEHIGARRIAK/CRÉDITOS ADICIONALES***

| *Kapituluak* | *Izena* | *Gehikuntzak* |
|---|---|---|
| *2* | *GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN* | *285.030,00* |

| | | |
|---|---|---|
| 4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 3.000,00 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 185.500,00 |
| **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA** | | **473.530,00** |

***FINANTZAKETA/FINANCIACIÓN***

| **Kapituluak** | **Izena** | **Zenbatekoa** |
|---|---|---|
| 2 (GASTUAK) | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN | (-)181.000,00 |
| 3 (GASTUAK) | FINANTZA GASTUAK | (-)1.000,00 |
| 8 (SARRERAK) | FINANTZA AKTIBOAK | 291.530,00 |
| **GUZTIRA** | | **473.530,00** |

Urkiri zinegotziak irizpine puntuka bozkatu daitekeen galdetu du, eta ezezkoa jaso ondoren, bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **batez onartu** da.

La concejala Urkiri pregunta si se puede votar el dictamen punto por punto, y tras decirle que no, se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

**3.-2022ko udal-aurrekontua. Kreditu aldaketa, kreditu gehigarria modalitatean: hasierako onarpena**

**3..-Presupuesto municipal del 2022. Modificación de créditos, en la modalidad de crédito adicional: aprobación inicial.**

Alkateordeak Andoni zinegotziari pasa dio hitza, eta horrek kreditu aldaketa egitearen zergatia eta horren nondik norakoak azaldu ondooren, ogasun eta Ondarea Batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

La Teniente de Alcalde cede la palabra al concejal Andoni, y ese tras explicar las razones y pormenores de la modificación, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

***Lehena.-*** *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

***Primero.-*** *Aprobar el expediente de modificación de créditos del Presupuesto de este Ayuntamiento, en su modalidad de créditos adicionales, con el detalle por partidas que figura en la propuesta, según el siguiente resumen por capítulos:*

***KREDITU GEHIGARRIAK/CRÉDITOS ADICIONALES***

| **Kapituluak** | **Izena** | **Gehikuntzak** |
|---|---|---|
| 2 | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN | 3.000,00 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 281.000,00 |
| **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA** | | **284.000,00** |

***FINANTZAKETA/FINANCIACIÓN***

| **Kapituluak** | **Izena** | **Zenbatekoa** |
|---|---|---|
| 1 (SARRERAK) | ZUZENEKO ZERGAK | 15.868,34 |
| 7 (SARRERAK) | KAPITAL TRANSFERENTZIAK | 78.131,66 |
| 8 (SARRERAK) | FINANTZA AKTIBOAK | 190.000,00 |
| **GUZTIRA** | | **284.000,00** |

***Bigarrena**.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.*

***Segundo**.- Exponer al público durante quince días a efectos de reclamaciones. Si no se presentaran reclamaciones, se entenderá que el presente acuerdo es definitivo. Este expediente deberá seguir el resto de trámites establecidos para la aprobación del presupuesto.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **onartu** da, aldeko 5 botoekin (*Astigarragako EHBildu)* eta 3 abstentzioekin *(Astigarragako EAJ-PNV)*

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen con 5 votos a favor (*Astigarragako EHBildu*) y 3 abstenciones (*EAJ-PNV de Astigarraga*)

## 4.- 2023ko udal-aurrekontua. Hasierako onarpena

## 4.- Presupuesto municipal del 2023. Aprobación inicial.

Alkateordeak Andoni zinegotziari pasa dio hitza eta horrek aurrekontuaren nondik norakoak azaldu ditu. Adierazi du lehengo aldiz 11 miloiko langa gainditu duela, aurreko urtekoekin alderatuz %6,96 handitu dela, dirusarrerak handitu direlako (bai Aldundiko ekarpena, bai zergabilketatik jasotakoa), baina aurrekontua baldintzatua dagoela gasaren eta argirdarraren gastuaren igoeragatik, eta Donostia ibilbideko urbanizazio lanengatik

Azaldu du gehien handitu den gastu partida gizarte zerbitzuetakoa izan dela (ia %28a), besteak beste, etxez etxeko laguntza zerbitzua indartzeko, laguntza lerro berria emateko eta 3. gizarte langilea kontratatzeko; eta gastua handitu duen bigarren saila izan dela hezkuntza eta euskara, besteak beste, euskara plana egiteko, ostalaritzan euskara sustatzeko eta UEMAn sartzeko asmoa dagoelako.

Jarraian, azaldu du irizpenarekin batera banatutako dokumentazioan, hain zuzen, langile zerrendan, akats bat dagoela, hezkuntza-euskara teknikariaren titulazioaren kodeari dagokionez, 300 jartzen baitu 400 jarri behar zuenean. Eta ogasun eta Ondarea Batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehena.-** Ordezko kontu-hartzaileak egindako emendakinak onartzea. (4962 sarrera zenbakia)*

***Bigarrena**.- EAJ-PNV taldeak egindako emendakinak EZ onartzea. (4951 sarrera zenbakia,)*

***Hirugarrena.-** EHBILDU taldeak egindako emendakinak onartzea. (4963 sarrera zenbakia,)*

La Teniente de Alcalde cede la palabra al Concejal Andoni, quien explica el presupuesto. Indica que por primera vez se ha superado la barrera de 11 millones, que se ha incrementado un 6,96% respecto a años anteriores, debido al incremento de los ingresos (tanto de la aportación de la Diputación como de la recaudación), pero que está condicionado por el aumento del gasto de gas y luz y por las obras de urbanización de Donostia ibilbidea.

Explica que la partida de gasto que más se ha incrementado es la de servicios sociales (casi un 28%), entre otros, para reforzar el servicio de ayuda a domicilio, dar una nueva línea de ayudas y contratar a la 3ª trabajadora social; y que educación y euskera ha sido el segundo departamento que ha aumentado el gasto, ya que se tiene intención de hacer un plan de euskera, de fomentar el euskera en la hostelería, de entrar en UEMA, etc.

A continuación, explica que en la documentación distribuida con el dictamen, concretamente en la RPT, existe un error en cuanto al código de la titulación del técnico/a de euskera y educación, puesto que pone 300 en lugar de 400; y presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

***Primero**.- Estimar las enmiendas formuladas por la interventora accidental (número de entrada 4962).*

***Segundo.-** Desestimar las enmiendas formuladas por el grupo EAJ-PNV (número de entrada 4951).*

***Tercero**.- Estimar las enmiendas formuladas por el grupo EHBILDU (número de entrada 4963).*

**Laugarrena.-** *2023ko aurrekontuari eransten zaizkion emendakin onartuekin, 2023ko Aurrekontu Orokorra bateratuari eta hura osatzen duten dokumentuei hasierako onespena ematea.*

**Bosgarrena.-** *21/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2022ko Aurrekontu Orokorra hasieraz onartzeko espedientea jendaurrean jartzea 15 egun baliodunetan, eta, alegaziorik izan ezean, behin betiko onartutzat jotzea, erabakirik eman beharrik gabe.*

**Seigarrena.-** *Hasierako onarpenaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*

Urkiri zinegotziak hitza hartu du eta esan ondoren legealdiko azken aurrekontua dela, adierazi du bere taldeak egingo lukearen antzekoa dela, ongi ikusten dutela gizarte zerbitzuak eta hezkuntza eta euskara sailak bultzatzearekin eta puntu bakarrarekin egiten dutela tanka, zehazki, zaborraren munduarekin. Baina bere taldeak ezin dutela aurkeztutako aurrekontuak babestu, beren zuzenketak ez direlako haintzat hartu.

Andoni zinegotziak adierazi du aurkeztutako emandakina 300.000 eurotara ez zela iristen, aurreko urteko berdina dela, eta murriztea eskatu duten kontusai bakarra izan dela San Marcosi hiri-zaborra biltzeagatik egin beharreko ordainketarena, ulergaitza izanik beraiek jarritako sistema ordaintzeko partida murriztea eskatzea.

Jarraian, adierazi du EAJ-PNVk ogasun batzordean horrela eskatu zutenez, irizpena puntuko bozkatuko dela, baina azken horiek horrela eskatuta bere osotasunean bozkatu da, eta irizpena **onartu** da, 5 botoekin (*Astigarragako EHBildu)* eta kontrako 3 botoekin *(Astigarragako EAJ-PNV)*,

**Cuarto.-** *Con las enmiendas estimadas que se incorporan al presupuesto 2023, proceder a la aprobación inicial del Presupuesto General consolidado 2023 y los documentos que lo integran.*

**Quinto.-** *Conforme a lo dispuesto en el artículo 15 de la Norma Foral 21/2003, someter el expediente de aprobación inicial del Presupuesto General 2022 a información pública por el plazo de 15 días hábiles, reseñando que en caso de no formularse alegaciones se entenderá aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.*

**Sexto.-** *Remitir el acuerdo de aprobación inicial al Boletín Oficial de Gipuzkoa para su publicación.*

Toma la palabra la concejala Urkiri, y tras señalar que es el último presupuesto de la legislatura, comenta que es similar al que haría su grupo, que ven bien impulsar los departamentos de servicios sociales y educación y euskera, y que con lo único que no están de acuerdo es con el mundo de las basuras. Pero que su grupo no puede apoyar los presupuestos, al no haberse tenido en cuenta las enmiendas que han presentado.

El concejal Andoni manifiesta que la enmienda presentada no llegaba a los 300.000 euros, que es la misma que el año anterior, y que la única partida que han pedido reducir es la del pago a San Marcos por la recogida de la basura urbana, siendo incomprensible que se pida reducir la partida para pagar el sistema que ellos han puesto.

A continuación señala que, tal y como solicitaron EAJ-PNV en la Comisión de Hacienda, el dictamen se someterá a votación de punto, pero a petición de éstos se procede a votar en su totalidad; y se **aprueba** el dictamen con 5 votos a favor (*Astigarragako EHBildu*) y 3 en contra (*EAJ-PNV de Astigarraga*).

## 5.-2023ko zerga fiskalak: alegazioak erantzutea eta behin betiko onarpena.

Alkateordeak Andoni zinegotziari pasa dio hitza, eta horrek Ogasun eta Ondarea Batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** *Ordezko kontu-hartzaileak eginiko alegazioa onartzea. (4874 sarrera zenbakia).*

**Bigarrena.-** *Onartu diren alegazioarekin, 2023ko*

## 5.-Ordenanzas Fiscales 2023: contestación de las alegaciones y aprobación definitiva.

La Teniente de Alcalde cede la palabra al Concejal Andoni, y ese presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

**Primero.-** *Estimar la alegación realizada por la interventora accidental (número de entrada 4874).*

**Segundo.-** *Con la incorporación de la alegación*

*urtarrilaren 1ean indarrean sartuko den zerga-ordenantzaren Testu Bategina, behin betirako onartzea.*

***Hirugarrena.-*** *Zerga-ordenantzaren Testu Bategina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

*estimada aprobar definitivamente el texto refundido de las ordenanzas fiscales que entrarán en vigor el 1 de enero de 2023.*

***Tercero.-*** *Remitir el texto refundido de las ordenanzas fiscales al Boletín Oficial de Gipuzkoa para su publicación.*

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

**6.-2022ko ordainsari-igoera gehigarria**

Alkateordeak Ogasun eta Ondarea Batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehena.-*** *Sektore publikoko langileen ordainsarien handipena ezartzea, 2022/01/01etik aurrerako ondorioekin, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko % 1,5, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokionez, homogeneotasuna mantenduz.*

***Bigarrena.-*** *Aipatu igoera aplikatzea udal langileen nominetan.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

**6.-Incremento retributivo adicional 2022.**

La Teniente de Alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

***Primero.-*** *Aplicar un incremento adicional de las retribuciones del personal al servicio del sector público con efectos 01/01/2022, de un 1,5% respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2021, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal, como a la antigüedad del mismo.*

***Segundo.-*** *Aplicar la subida salarial acordada en las nóminas de las personas trabajadoras.*

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

**7.-Beterri-buruntza Mankomunitatea. 2012-2021eko likidazioen onarpena.**

Alkateordeak Ogasun eta Ondarea Batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehena.-*** *Beterri Buruntzaren 2012ko ekitalditik 2021era bitarteko likidazioa onartzea, Andoaingo kontu-hartzailearen 2022ko abuztuaren 5eko txostenean jasotako baldintzetan.*

***Bigarrena.-*** *Erabaki hau Andoaingo udalari helaraztea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

**7.-Mancomunidad Beterri-buruntza. Aprobación de las liquidaciones 2012-2021**

La Teniente de Alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

***Primero.-*** *Aprobar la liquidación desde el ejercicio 2012 hasta el 2021 de "Beterri Buruntza" en los términos recogidos en el informe de 5 de agosto de 2022 de la interventora de Andoain.*

***Segundo.-*** *Dar traslado del presente acuerdo al Ayuntamiento de Andoain.*

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

**8.-Beterri-buruntza Mankomunitatea. Programak**

**8.-Mancomunidad Beterri-buruntza.**

| | |
|---|---|
| **gauzatzeko kudeaketa gomendio.** | **Encomienda de gestión para la ejecución de programas.** |
| Alkateordeak Andoni zinegotziari pasa dio hitza, eta horrek kudeaketa gomendioa egin beharraren arrazoiak azaldu ondoren, Ogasun eta Ondarea Batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin: | La Teniente de Alcalde cede la palabra al Concejal Andoni, y ese tras explicar las razones para tener que realizar la encomienda, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio: |
| ***Lehena.-*** *Beterri-Buruntzako Mankomunitateak Astigarragako udalari indarrean dauden toki-garapeneko programak gauzatzeko kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena onartzea.* | ***Primero.-*** *Aprobar el convenio por el que se formaliza la encomienda de gestión de la Mancomunidad de Beterri-Buruntza al Ayuntamiento de Astigarraga para la ejecución de los programas de desarrollo local en vigor.* |
| ***Bigarrena.-*** *Alkateari eta alkateordeari ahalmena ematea lehenengo puntuko hitzarmena formalizatzeko eta behar diren agiriak sinatzeko.* | ***Segundo.-*** *Facultar al alcalde y a la teniente alcalde para la firma del convenio y documentos que sean necesarios para la formalización del convenio del punto primero.* |
| Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da. | A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**. |

| | |
|---|---|
| **9.-Aholkularitza eta defentsa juridikoaren zerbitzuaren kontratua luzatzea.** | **9.-Prorroga del contrato del servicio de asesoría y defensa jurídica** |
| Alkateordeak Ogasun eta Ondarea Batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin: | La Teniente de Alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio: |
| ***Lehena.-*** *Hirigintza, etxebizitza eta ingurugiro saileko aholkularitza- eta defentsa juridikoaren zerbitzua urtebeteaz luzatzea.* | ***Primero.-*** *Ampliar en un año el servicio de asesoramiento y defensa jurídica del departamento de urbanismo, vivienda y medio ambiente.* |
| ***Bigarrena.-*** *ARAUDI SLP enpresari jakinaraztea, kontratu luzapen honetarako ezin duela izendatuta duen langilea aldatu.* | ***Segundo.-*** *Comunicar a la empresa ARAUDI SLP que para esta prórroga de contrato no puede cambiar al trabajador que tiene designado.* |
| Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da. | A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**. |

| | |
|---|---|
| **10.-2022ko euskararen nazioarteko egunerako adierazpen instituzionala** | **10.-Declaración institucional del día internacional del Euskera de 2022.** |
| Alkateordeak azaldu du egindako bozeramaile batzordean onartu dela EH Bildu udal taldeak aurkeratutako testua aderazpen instituzionaltzat onartzea. Jarraian honako testua aurkeztu du onartua izan dadin: | La Teniente de Alcalde comenta que la Junta de Portavoces ha acordado aprobar el texto presentado por el grupo municipal de EH Bildu como declaración institucional. A continuación presenta el siguiente texto para su aprobación: |
| *Euskararen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko eguna da.* | *Es la fecha de la proclamación del Día Internacional del Euskera.* |

*Euskararen egoera osasuntsu izatetik urrun dago. Hortaz, abenduaren 3a euskararen normalizazioa aldarrikatzeko eguna da, hau da, euskal herritar guztiontzat eguneroko arlo denetan euskara ohiko eta lehentasunezko hizkuntza izan dadila aldarrikatzeko eguna. Euskara normalizatuko bada, hizkuntza politika, burujabea eta kanpo esku hartzerik gabea behar dugu ezinbestean, herritarren aktibazioarekin batera.*

*La situación del euskera está lejos de ser saludable. Por lo tanto, el 3 de diciembre es la fecha de reivindicación de la normalización del euskera como lengua habitual y prioritaria en todos los ámbitos de la vida cotidiana de la ciudadanía vasca. La normalización del euskera pasa necesariamente por una política lingüística independiente y sin intervenciones externas, junto con la activación de la ciudadanía.*

*Behar-beharrezkoa da gaurdanik, gure instituzioetan, euskara normalizazio bidean jartzeko politika eta erabaki ausartak hartzea, besteak beste: euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatu eta egoera soziolinguistikoaren arabera euskara administrazioko lan edota zerbitzu hizkuntza bihurtzea; euskararen arnasguneak bultzatu eta indartzea; erakunde ezberdinetan egiten ditugun kontratazio- publiko eta lehiak eta guztietan hizkuntza-irizpideak txertatu eta garatzea; hiztun berriak lortu eta euskararen ezagutza herriz-herri unibertsalizatu eta doakoa izan dadin urratsak ematea; herrietan euskara batzorde zabalak sortu edo gorpuztea, eta euskalgintzarekin, eragileekin zein sektore desberdinetako erakundeekin elkarlana bultzatzea.*

*Desde hoy, en nuestras instituciones, es necesario adoptar políticas y decisiones atrevidas para poner el euskera en el camino de la normalización, tales como: garantizar los derechos lingüísticos de los vascohablantes y convertir el euskera en lengua de trabajo y/o de servicio en la administración, de acuerdo con la situación sociolingüística; impulsar y fortalecer los espacios vitales del euskera; introducir y desarrollar las contrataciones públicas y las rivalidades que realizamos en las diferentes instituciones, así como los criterios lingüísticos en todas ellas; dar pasos para conseguir nuevos hablantes y conseguir que el conocimiento del euskera sea popular universalizado y gratuito; crear y/o dar cuerpo a amplias comisiones de euskera en los pueblos; e impulsar la colaboración con el sector de la lengua vasca, con los agentes y con entidades de diferentes sectores.*

*Bide honetatik, 2022ko udazkenean Udalak sortu duen Euskara eta Hezkuntza teknikariaren lanpostu berria azpimarratu nahi dugu; aurten jardunaldi erdian egon arren, 2023an zehar jardunaldi osora igaroko dena. Baina noski, euskal hiztunen aktibazioa da euskara normalizatzeko gako garrantzitsuena. Horretarako, Astigarragako Udalak aurten ere abian den Euskaraldiarekin bat egin du, astigartarren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzeko asmoz.*

*En este sentido, queremos destacar el nuevo puesto de trabajo de Técnico/a de Euskera y Educación creado por el Ayuntamiento en otoño de 2022, que este año está a media jornada y que pasará a jornada completa a lo largo de 2023. Pero claro, la activación de los vascoparlantes es la clave más importante para la normalización del euskera. Para ello, el Ayuntamiento de Astigarraga se ha sumado al Euskaraldia que este año también está en marcha, con el objetivo de cambiar los hábitos lingüísticos de los astigares y aumentar el uso del euskera.*

*Aurtengoa, ariketa sozial honen hirugarren edizioa da; 2022ko azaroaren 18an hasi eta abenduaren 2an amaituko dena. Bere leloa HITZEZ EKITEKO GARAIA da. Edizio berri honek bi helburu nagusi izango ditu. Batetik, Euskaraldian parte hartzen duten norbanako eta entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urrats berriak ematea. Eta bestetik, parte hartzea hedatzea: ahobizi, belarriprest eta arigune gehiago izatea. Euskaraldiaren xedeak bat datoz Astigarragako Udalak ezarriak dituen helburu estrategikoekin, eta Udalaren hizkuntza politika indartu eta sakontzeko aukera paregabea ematen digute.*

*Este año es la tercera edición de este ejercicio social, que comenzará el 18 de noviembre y finalizará el 2 de diciembre de 2022. Su lema es MOMENTO DE ACTUAR VERBALMENTE. Esta nueva edición tendrá dos objetivos principales. Por un lado, dar nuevos pasos para la difusión de las prácticas en euskera por parte de las personas y entidades que participan en Euskaraldia. Y por otro, ampliar la participación: tener más orejas, orejas y espacios de ánimo. Los objetivos del Euskaraldia están alineados con los objetivos estratégicos establecidos por el Ayuntamiento de Astigarraga y nos ofrecen una oportunidad única para reforzar y profundizar en la política lingüística del*

*Behin hau azalduta, Astigarragako Udalak honako konpromisoak hartzen ditu:*

*1.Astigarragako Udalak Euskaraldiarekin bat egiten du eta gogoz sustatuko du ekimena.*

*2.Astigarragako Udalak erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du eta hamabost eguneko ariketa egingo du, 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean.*

*3.Astigarragako Udalak ariguneak babesteko eta sustatzeko konpromisoa hartzen du; hizkuntza ohiturak finkatu eta egonkortzeko asmoarekin.*

*4.Astigarragako Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible izan daitezen eta praktika horiei etorkizunean eutsi ahal izateko.*

*Eta gainera, ondorengo deia egiten die herritarrei:*

